



## **GURE BEZEROEKIKO HARREMANA**

Gure enpresan, uste dugu gure bezeroekiko harremana oso faktore garrantzitsua dela enpresa bat aurrera eramateko orduan. Kasu honetan, udaletxea da eta gure helburu nagusia erabiltzaileen intereseak primatzea da. Hori dela eta, erabaki dugu gurekiko harremana bi motakoak izan dadin: zerbitzu automatikoa eta taldeko sorkuntza.

Lehenik eta behin, gure zerbitzua aplikazio batean eskuragarri izateagatik, gure bezeroekiko harremanaren parte bat zerbitzu automatikoa izango da. Gure enpresaren zerbitzu gustiak aplikazioaren bidez eskainiko ditu. Gure aplikazioak erabiltzailearen datu pertsonalak ikasiko ditu. Adibidez, erabiltzailea mugitzen den zonaldea ikasiko du inguru horretan dauden dendaren publizitatea jartzeko.

Bigarrenik, taldeko sorkuntzazko harremana izango du kontsumitzaileekin. Hau, erabiltzaileei gustatzen ez zaiena adierazteko. Hau eginez, ziur gaude ditugun okerrak zuzentzen lagunduko digula. Beste modu batera esanda, erabiltzaileak bere berrikuspena emateko gai izango dira.

